

NOLA ABIATU PROZESUA?



1.Deskargatu lehen eskabidea webgune honetan, zure erkidegoari dagokiona hautatuz:

www.sanidad.gob.es/eutanasia/home.htm



↳ **EGIN BI KOPIA:** bat medikuarentzat eta bestea zuretzat

2. Hautatu eutanasia-eskaera bideratuko dizun medikua

↳ **ONARTZEN BADU:** Lehen eskaera horren bi kopiak sinatuko dituzue. Medikua arduraduna izango da hortik aurrera.

↳ **BETEBEHARRAK BETETZEN BADITUZU:** 2 egunetan deliberazio-prozesua egingo duzue

↳ **HAREN USTEZ BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITUZU:** 10 egunetan eskaeraren ukapenarekin txosten bat jasoko duzu. 15 egunetan helegitea jar dezakezu Berme eta Ebaluazioa Batzordean



3. Medikua eragozlea baldin bada

↳ **INFORMATU BEHAR ZAITU:** eragozlea dela esanez

↳ **SINATU BEHAR DU ZURE ESKAERA:** Ez badu sinatzen erreklamazio bat jar dezakezu arreta-zerbitzuan

↳ **ZURE ESKAERA ENTREGATU BEHAR DIO ZERBITZUKO ARDURADUNARI,** berak horrek arduradun bat bila dezan

↳ Hala ere gomendatzen dizugu arreta-zerbitzuan erregistra dezazula zure lehen eskaera, eta eska dezazula arduradun bat bila dezaten

GIDA AZKARRA

EUTANASIA, NOLA ESKA DAITEKE?

DUINTASUNEZ
HILTZEKO
ESKUBIDEA
elkartea

dmd dhe
DERECHO A MORIR DIGNAMENTE
DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEA
E U S K A D I

DMD-DHE Euskadi.
635738131
dmdeuskadi@derechoamorir.org

derechoamorir.org

IKUSPEGI OROKORRA

EUTANASIA ESKATZEKO URRATSAK

*BEB – Berme eta Ebaluazio Batzordea

*MA: Mediku arduraduna

*MK: Mediku kontsultorea



1. URRATSA

1. ESKAERA MEDIKU ARDURADUNARI

Aukeratu medikua (eragozlea bada hala adierazi behar dizu).

Eskaera onartzen badu sinatuko du eta MA izango da. Eragozlea bada sinatu behar du eta zuzendaritzara jo beharko du MA bila dezaten (Erizain batek ere sinatu dezake eta zuzendaritzara jo).

Haren ustez baldintzak betetzen badituzu, 2 egunetan deliberazio-prozesu bat egingo duzue eta 5 egunetan idatzizko informazioa jasoko duzu.

Ezezkoa jaso dezakezu 10 eguneko epean. Horren aurrean helegitea jar dezakezu BEBren aurrean 15 egunetan.



2. URRATSA

2. ESKAERA MEDIKU ARDURADUNARI

Gutxienez 15 egun pasata 1. eskaeratik, 2. eskaera egin behar zaio mediku arduradunari.

Deliberazio-prozesu berria, **borondatea** berresteko, eta baimen informatua sinatu behar duzu.

MAk erizaintza jakinaren gainean jartzen du. Erabakimena galtzeko arriskuaren aurrean 2 eskaeren arteko 15 eguneko epea labur daiteke.



3. URRATSA

ELKARRIZKETA MEDIKU KONTSULTOREAREKIN

MAk mediku kontsultore (MK) bat kontaktatzen du zure kasua azter dezan eta baldintzak betetzen dituzula berrets dezan. 10 eguneko epea du, 2. eskaeratik kontatuta, txostena egiteko.

MAk emango dizu horren berri. Aurkakoa bada, motibatu behar du eta 15 eguneko epea dago BEBren aurrean helegitea jartzeko.



4. URRATSA

BERME ETA EBALUAZIO BATZORDEAREN AURRETIAZKO EGIAZTAPENA

MAk 3 eguneko epean bidaltzen dizkio dokumentu guztiak BEBra. Batzordearen buruak 2 egunetan bi batzordekide (medikua eta legelaria) izendatuko ditu historia klinikoa azter dezaten.

Elkarriketa bat egin dezakete zurekin eta asistentzia-taldearekin, 7 eguneko epean txostena eginez. Hortik 2 egunera buruak komunikatzen du erabakia.

Aurkakoa balitz 15 eguneko epean helegitea jar daiteke batzordearen plenora, 20 eguneko epean bildu eta erantzun beharko duena.

Azken aukera administrazioarekiko auzi-errekurtsoa da.



5. URRATSA

HILTZEN LAGUNTZEKO PRESTAZIOA (EUTANASIA)

Legeak ez du epe zehatz bat markatzen. Gogoeta egin behar duzu: noiz, non, norekin... Komentatu asistentzia-taldearekin. Atzeratzeko eskubidea duzu, nahi duzun epean (MAk jakinaraziko dio BEBri)